



“Bakeak ez du
ez preziorik,
ez ordainsaririk”

ERREPORTAIA >> 3



Gatazkaren
aurpegi bat:
presoak
eta iheslariak

IRITZIA >> 6



zkerra
Berri
aldizkaria

1 2011ko ABENDUA. Ezkertiar eta Abertzaleen aldizkaria

Bake bidean

AK
AHI DU



Etapla berria, aro berria, garai berriak, momentu historikoa



Aralarreko Hegoaldeko Zuzendaritza

Etapa berria, aro berria, garai berriak, momentu historikoa. Gisa horretako makina bat hitz esaldi entzun behar izan ditugu azkenaldian, eta egia esan, poztekoa ere bada. Hala delako, eta dagoeneko inork ez duelako ukatzen une garrantzitsuan, historikoan, murgilduak gaudela; eta ondorioz, aro berriari parez pare ireki dizkiogula ateak. Ireki dizkiogula, bai! Ongi irakurri duzue. Izan ere, ez da inprobisazioaren, kasualitatearen, ondorioz izan. Baizik eta batzuk eta besteok, hemendik eta handik, egin dugun lanaren eta ekarpenaren ondorioa. Bakoitzak dagoen tokitik, mugitzen den esparruan, umiltasunez egindako ekarpenaren ondorioa, baina ez horregatik garrantzi txikikoa. Bejon deizuela guztioi! Eragile sozialak, herri mugimenduak, sindikatuak, alderdi politikoak. Tira eta bultza, hor ari gara Euskal Herriari eszenatoki demokratikoa eraiki eta ireki nahian. Hor dago guztiok elkarlanean bideratu eta herritarrekin batera garatu eta gauzatzen ari garen Bake eta Normalizazio Politikorako ibilbide-orria, Euskal Herrian mugarrari eta inflexio puntua bilakatuz 2010eko irailaren 25a. Ondorengo beste inflexio puntuei bide emanez, eta askatasunean, justizian oinarritutako Bake iraunkorreruntz jauzi kualitatiboa emanez, urriak 17ko eta urriak 20ko urrats kualitatibo eta itzulezinekin batera.

Orain arteko bidea ez da erraza izan, eta hemendik aurrerakoa ere ez da erraza izango. Batzuetan, momentu honetan bezala, gertakariak arinegi joango zaizkigu, ia asimilatu eta egokitu ezinik; beste batzuetan, aldiz, motel, oso motel, inpresioa izanez dena alferrikakoa izan dela. Baina ilusioz, eta orain arteko bidea jarraituz, lortuko dugu. Aralarren horretaz zerbait badakigu. 10 urte luze izan dira, gazi-gozoak. Sarritan basamortuan predikatuz. Baina azkenean, Aralarrek bere sorreran ezarri zituen helburuak inoiz baino gertuago ditugu: ezker abertzale zibil eta zabal, eta askatasunean, justizian oinarritutako bake iraunkorra. Benetan pena merezi izan du, orain arteko jardunak eta bideak. Eta ilusioa areagotzen digu aurrean ditugun erronkei heltzerako garaian. Nahiz eta, bizi dugun egoera ekonomiko-soziala benetan larria izan, eta horrek, sartu garen aro berri horri iluntasunak areagotzen dizkion. Baina ziur gaude ekin diogun bidetik, ezker abertzale zibil ta zabal sendo eta eraginkorra eraikitze-ko gai bagara, egoera ekonomiko-soziala ere irauliko dugula. Zor diogu Euskal Herriari, zor diogu euskal langilerari.

Goazen bada, etapa berri honi ilusioz eta gogoz ekitera, argitasunak areagotuz eta iluntasunak gutxituz; giltza gure esku dagoelako, guztiok, herritarrok, garelako giltza. Eta etapa berri honi ere gure ekarpena egiteko, hona hemen Ezkerraberri aldizkaria. Hilero, arlo desberdinak jorratuko dituen aldizkaria. Iritziak, ikuspuntuak konpartitzeko prest. Aniztasunetik, begirunez ekarpena eginez. Elkarbizitzaren oinarria begirunea izanik, elkarbizitza bakearen azpiegitura delako.

Datorren aleko gaia: KRISI SOZIO-EKONOMIKOA

e-mail bitartez zuen artikuluak bidal ditzakezue.

Ale bakoitzean josotako 2 iritzi artikulu

argitaratuko dira. ANIMATU!



ezkerraberri fundazioa

Aduanaren Txokoa 16-18

31001 IRUÑA

www.ezkerraberri.org Tel: 948206362

fundazioa@ezkerraberri.org

Patxi Zabaleta, Aralarreko koordinatzailea

“Bakeak ez du ez preziorik, ez ordainsaririk”

Aralarrek Euskal Herriaren bakegintzari azken 11 urteotan egin dion ekarpenaz pozik mintzo da Patxi Zabaleta Aralarreko koordinatzaile nagusia. Egun batzuk joan dira Aieteko Nazioarteko Bake Konferentziako agiri esanguratsua ezagutu zenetik eta ondoren ETAK behin betirako jarduera armatua uztea erabaki zuela jakinarazi zuenetik. Gertaera eta erabaki horien garrantziaz jabetzen ari da euskal gizartea. Zabaletak argi dauka nondik joan behar diren hemendik aurrerako urratsak, Euskal Herrian behin betiko bake egonkortzeko. “Gernikako Akordioko edukietan zehazten da bakegintza eta normalizazio politikorako ibilbide-orria”, esan du.

“Eztabaida politikora Aralarrek egin duen ekarpenik garrantzitsuena izan da bakea demokraziaren azpiegitura dela; zera alegia, elkarbizitzaren eta baita elkartzaren oinarria eta horrexegatik ezin zaiola bakeari inolako preziorik ezarri”, azpimarratu du Zabaletak Euskal Herriko politikagintzan Aralarrek jokatu duen paperaren errepaso egiterakoan. Bakea eta politika bereizi egin behar direla. “Helburu eta asmo politiko guztiak bakegintzatik bereizita bilatu, borrokatu eta lortu behar dira. Esate baterako, autodeterminazioaren eta lurraldetasunaren alde gaude; are gehiago, Euskal Herriaren nazio izatearen aitortza, bateratzea eta independentzia aldarrikatzen ditugu, baina xede guzti

»



“Gernikako Akordioko edukietan zehazten da bakegintza eta normalizazio politikorako ibilbide-orria”

»

horiek bide soilik politikoetatik eskuratu behar direla uste dugu. Bestelako saiakera guztiak ez bakarrik ez lirateke demokratikoki onargarriak, baizik eta gainera, gizarteak ez lituzke bere eginen”.

Irizpide horietan uste osoa izanik aritu zen Aralar Gernikako Akordioko edukiak negoziatzen, gaur egun eraikitzen ari garen bakearen oinarriak bertan adostek izango zuen garrantziaz jakinaren gainean. Patxi Zabaletak nabarmendu duenez, “Gernikako Akordioak bakea aldarrikatzeko duen ikuspegi ideologikoa eta Donostiako Bake Konferentziaren eskakizun ospetsua bat datoz, eta horien ondoren ETAK jakinarazitako erabakiak men egiten dio perspektiba horri. Bakeak aldebakarrekoa behar du, ordain edo sari politikorik gabea eta erabaki politikoaren ondorioa. Bakea berezko balio nagusia da eta horrexegatik ezin da beste ezerekin ez trukatu, ez baldintzatu eta ez menperatu. Horixe da Gernikako Akordioaren bereizgarri nagusia, aurretik izan diren prozesuetatik, dela Arjelkoa, dela Lizarra Garzikoa edo dela Anoeta-Loiolakoa. Bestelako eskema batera jotzen du Gernikako Akordioak; bestelako ibilbide bat eratzen du. Horra zergatik gainera, bake bide hau babesturik eta blindaturik dagoen Espainiako edo Frantziako gobernuen arduragabekerietatik edota zentralismoaren eta eskuinaren erasoetatik.

Azken egunotan asko hitz egin da errelato bakarra eraikitzeaz, baina Zabaletak argi du hori “funtsik gabeko xedea ez-zez, ezinezko zeregina” dela. Adibidez, “Frankismoaren errelatoa bera edo Gernikako bonbardaketarena edo judutarren holokaustoa edota Palestinarren genozidio edo urrutirago joanda orain dela 500 urteko Nafarroaren konkista bera hain eztabaidatuak baldin badira gaur egun oraindik, nolatan lortu edo ezarri ETAREN historiari buruzko errelato adostu bat? Errelato bakarra izatea ezinezkoa da, historiagile bakoitzak bere ikuspegi eta ideologia askearen araberako balorapen eta errelato ezberdinak egiten eta eginen dituelako.”

Aitzitik, “irabazle eta galtzaileen diskurtsoa edo garapen eta porrotaren aipamenak” alboratu egin behar direla uste du ohiko erabilpen politikoan, “bakea-

ren antitesia direlako.” Deiera horiek hizkuntza militarrekoak eta gerrakoak direla azpimarratzen du. “Bitxia da, baina garai hauetan diskurtso hori egiten dutenak, zera alegia, ustezko irabazletzat dutenak beren burua, oso urduri agertzen ari dira, eta itxuraz galtzailatzat jotzen dituztenak berriz, pozik eta itxaropentsu”, gaineratu du.

“Bakea demokraziaren azpiegitura da”

ETAREN erabakiaren ondoren, presoan eta biktimen gaiari alde batetik eta gizartearen adiskidetzeari besterik heldu behar zaiola agertu du Zabaletak. “Beharrezkoa da gatazka bukatzekotan presoan eta biktimen nola gizartearen baitako haserrearen diren gaiak konpontzen saiatzea. Gatazkaren zatiak direlako; ondorioak dira, baina ez soilik ondorekoak, baizik eta gatazkaren berezko zatiak”. Biktimei buruz, azpimarratu du zor zaiela aitortza, errespetua eta erreparazioa, baina beti ere indarkeria guztietako biktimak aintzat hartuta, “hori bakarrik delako aterabide duina eta bakezkoa.”

“Zergatik da egokia ETAK behin betiko etena eman izatea eta ez bere baitako deuseztatzea?”, jarraitu du Zabaletak. “Besteak beste, bere erantzukizuna jaso behar duelako presoan eta biktimen auzia gainditzen den bitartean. ETARI ez zaio nahi ez duten presoan ordezkariak aitortu behar eta ezta ere jakina, nahi ez duten biktimekiko harreman eginkizuna, baina ETAREN aldetik erantzukizuna hartzea, agian bere unean barkazioa eskatzea eta behin betiko indarkeriaren etena berretsi eta bermatzea beharrezkoa da. Gainera, preso politikoaren espereko egoeraren hobetzea eta amnistia bera eta Gernikako Akordioan aitortzen diren beste helburu guztiak lortu arte, ETA erakundeak bere lekutasuna eman behar du. Besteak beste, inolako eszizio posibilitaterik egon ez dadin.”

Mahai gainean jarri du politikagintzako adierazpenetan aspaldian dabilen terminoa: barkazio eskea. “Barkazioak, bakeak bezala, berez izaera aldebekoa dauka. Barkazioa bakea bezala, hartu eta eman egiten da; aitortu eta





onartu. Barkazioa ezin daiteke alde bakarrekoa izan, baina gainera barkazioa giza harreman guztietan bezala, gizarteko adiskidetze eta errekonziliazioaren ezinbesteko osagarria da. Horregatik ez zaio beldurrik izan behar barkazio hitzari.”

Patxi Zabaletak uste du azpimarratzekoa dela bakearen oinarria etika dela, “eta bakea bera da demokraziaren azpiegitura, elkarbizitzaren eta elkartasunaren azpiegitura den heinean”.

“Indarkeriaren etena berretsi eta bermatu behar da”

Hori guztia horrela izanik ere, Aralarreko koordinatzaile nagusiak argi dauka bakeari ezin zaiola preziorik ezarri; hau da, aldebakarrekoa eta erabaki politikoan oinarritua izan behar dela. “Baina horrek ez du esan nahi bakeari ordainsaririk ezarri behar zaionik, Lopez eta enparauak oraintsu saiatzen ari diren moduan”. Zentzu horretan, nabarmendu du Euskal Herriari ezarri nahi zaiola bakea lortzeagatik ordainsari hori. “Peaje edo ordainsari hori eskatzen ari direnean, adierazi nahi dute abertzaletasunaren erroak ETAK sortu izan zituela. Ez da horrela. ETA izan da gatazka politiko horren ondorioetako bat”. Gaineratu duenez, “hainbeste denbora eman dutenak esaten bakeagatik ezin dela ezer ordaindu behar, orain kobratu nahian dabilta. Alegia, ETAREN historia nola idatzi behar den eta zer baldintza jarri behar diren inposatu nahian dabilta. Hori horrela burutuz gero, herritar ezberdinak gertatuko lirake euskal gizartean eta giza berdintasuna ezinbestekoa da”.

Julen Madariagaren esaldi bat gogoan hartuz, azpimarratu du ETAREN sorrera arrazoi soilik politikoengatik izan zela, eta bere amaiera ere arrazoi eta erabaki soilik politikoak izan behar zela eta hala gertatu dela. “ETA erakundeak ez du sortu gatazka politikoak, baina gatazka politiko horren ondorioa izan da. Horregatik, ETAKO kideak ez dira inoiz mertzenarioak izan, nahiz eta egin dituzten erailketak eta kalteak izugarriak gertatu. Gainera, azken hamarkada honetan bereziki, baina baita lehenagotik ere, estatuak amortizatua zeukan ETAREN

borroka armatuaren balio politikoa eta, ondorioz, egindako ekintza bakoitza estatuaren alde eta abertzaletasunaren aurka bihurtzen zen”. Horren ondorioz, bakea beharrezkoa zela azpimarratu du Zabaletak, “ez soilik arrazoi politiko eta justizia mailakoengatik, baita ere helburu politiko abertzaleak defendatu ahal izateko”.

“Bakeari ilusioz heldu behar zaio”

Bakea “beti berandu” heltzen dela aitortu arren, behin betiko bake iraunkorra erdiesteko egitekoari ilusioz heldu behar zaiola uste du Zabaletak. Etikan oinarritutako bakea, irabazle eta galtzailerik gabea, elkarbizitzan eta elkarren aniztasunen errespetuan oinarritutako gizartea erdiesteko, bide soilik politikoak erabiltzeari ahalbideratuko duena.”

La Paz no tiene precio ni contraprestaciones

Patxi Zabaleta, Coordinador de Aralar, nos comenta las aportaciones de Aralar para la consecución del nuevo escenario político.

Una de las aportaciones de Aralar al debate político ha sido la de entender la Paz como infraestructura indispensable para la Democracia. La de entender que la Paz y la Política han de recorrer caminos diferenciados.

El “Acuerdo de Gernika” se firma y se negocia bajo las premisas mencionadas. Es por ello que el mismo “Acuerdo de Gernika” blindo el nuevo escenario político. La unilateralidad del cese de ETA y la aceptación de que las reivindicaciones nacionales deben de discutirse en ámbitos exclusivamente políticos son el garante de que la nueva situación es irreversible.

Tenemos que afrontar el nuevo escenario de Paz con ilusión. Un nuevo escenario sin vencedores ni vencidos.





Rebecka Ubera, Aralarreko Antolaketa Idazkaria

Gatazkaren aurpegi bat: Presoak eta iheslariak.

Gatazkaren bi aurpegi, txanpon bereko bi aurpegiak: presoak eta biktimak. Bakoitzaren atzean pertsona bat, familia bat, historia bat, eskuzabaltasuna, sufrimenduak, ametsak. Bizitza oso bat, bakoitza bere berezitasunekin, ideiekin. Norbanako gisa, bere eskubide eta betebeharrekin. Baina biak, presoak zein biktimak euskal gatazkaren ondorio.

Zerbait premiazkoa bada, hori giza eskubideen urraketa ororekin bukatzea da, indarkeria ororekin, eta zalantzarik gabe horrek eskatzen du espetxe politika erroretik aldatzea.

Giza eskubide guztiekiko errespetua eta defentsa nagusi dadin eta euskal gatazkaren ondorioak aitortu eta konpontzeko bidean jar ditzagun.

Beraz, estatu Espainiako eta Frantziako estatuen txanda da, baina gehiago Espainiako estatuaren txanda. Estatu demokratiko bezala jokatu nahi badu, berorri ere aldebakarrekotasunez, ekimena hartu eta aritzea dagokio. Lehenik eta behin gaixotasun larriak dituzten presoak askatuz, eta salbuespeneko legedi, jokabideak, Parot doktrina kasu bertan behera utzia. Zer esanik ez, salbuespeneko "alderdien legearen" ondorioz soilik politika egiteagatik espetxean dauden kideak. Eta bigarrenik, euskal preso hurbilketari bide emanez.

Horretarako ez da, hauteskundeak pasa arte itxaron behar. Hauteskundeak ezin dira nahasi giza eskubideen errespetu eta defentsarekin. Giza eskubideak gainetik daude. Baina ohikoa bilakatu zaigu zorritzarez politikagintzan ausardia falta, ordainaren jokabideak, bai eta presioen aurrean men egitea. Ikustea besterik ez, Nazioarteko Bake Konferentziaren ondorioei nola aritu zaien muzin egiten hainbat biktima talde, segidan alderdiei, bereziki estatuko bi alderdi nagusiei zuzenean exijituz eta presionatuz preso eta iheslarien inguruan inolako urratsik ez emateko.

Preso eta iheslarien afera konpondu arte, ezingo da justizian oinarritutako bake iraunkorra eraiki. Ahaztu gabe, erbestera zein errefuxiatuak. Alde politikoari eta humanoari, hots, gizarteratzeari aurre egin eta ahalik eta konponbide juxtuena eta egokiena bilatzen

saiatu beharko gara. Justiziak eta duintasunak hala eskatzen duelako.

Euskal preso eta iheslari politikoak gatazkaren ondorioetako bat izanik, guztion arduraren eta erantzukizuna dira. Gizarte osoarena, salbuespenik gabe. Gatazka politikoak eragindako preso eta iheslari bat bera ere egon ez dadin, azken xedea Gernikako Akordioan jasota dagoen amnistia izanik. Amnistia delako justiziak eta duintasunak eskatzen duena. Guk, beraz, Gernikako Akordioa sinatzaile garen heinean, euskal gizartearekin batera, amnistia lortzeko bideari ekingo diogu, balioan jarriaz, amnistia delako helmuga eta xede bakarra justizia egiteko eta euskal gizartearen eta norbanakoen duintasuna bermatzeko. Horregatik, esan bezala, hor gure konpromisoa eta ahalegina.

Presos/as y refugiados/as

Para la resolución definitiva del conflicto armado es necesario terminar con todas las conculcaciones de los Derechos Humanos. Es necesario abordar el tema de las personas presas, refugiadas o exiliadas.

El cambio profundo de las políticas penitenciarias es una obligación, unilateral, del Estado Español y el Frances.

El Estado Español debería de derogar la doctrina Parot y liberar los presos y presas que padezcan enfermedades graves. Debería de derogar la Ley de Partidos y liberar a las personas encarceladas por hacer política. También se deberían de dar pasos significantes en el acercamiento de los presos y presas, sin tener en cuenta la situación política, si hay elecciones o no, ya que el respeto a los Derechos Humanos está por encima de la coyuntura política.

Como firmantes del "Acuerdo de Gernika" entendemos que la amnistia es el instrumento adecuado para dar un fin justo y digno al tema de las personas encarceladas, refugiadas o exiliadas ya que entendemos que han de tratarse como consecuencia del conflicto político. Es responsabilidad de toda la sociedad.

Gatazkaren beste aurpegia: Biktimak



Patxi Zabaleta, Aralarreko Koordinatzailea

Gatazkaren beste aurpegia, gatazkaren ondorio, baina nahiz eta gatazkak hamaika ondorio izan, guztiek badute zer ikusia sufrimenduarekin.

Biktimen multzoa orotariko pertsonen eta orotariko ideologiaz osaturik dago. Biktimen multzoa anitza da, gizartea bezain anitza, anitza ideologietan eta sufritariko indarkerietan. Beraz, bakearen aurrean guztiok berdinak garelako, biktimen aniztasuna onartzea ezinbestekoa da. Memoriaren lanketan, norberak bere irakurketa egiten badu ere, justizia eta duintasunagatik ideologi eta eragile ezberdinek sorturiko biktima guztien aitortza eta hauekiko errekonozimendua lantzea ezinbestekoa eta beharrezkoa da.

Víctimas

Las víctimas son plurales, tanto ideológicamente como en la procedencia de la violencia sufrida. Y en la Paz, ya que todas las personas somos iguales, es imprescindible admitir esa pluralidad y trabajar el reconocimiento de todas las víctimas.

La Paz no es de nadie y es de todos y todas, y por ello corresponde a toda la sociedad trabajar en el reconocimiento de todas las víctimas, con la justicia y la reparación como objetivos.

El recuerdo y la memoria deben de construirse desde el reconocimiento y la admisión del sufrimiento causado por la conculcación de los Derechos Humanos y compartiendo los hechos vividos con la sociedad.

No será fácil el camino de la reconciliación ya que más allá de las iniciativas que se fomenten desde las instituciones, la reconciliación conlleva en si misma el desarrollo personal de cada individuo que conforma la Sociedad.

Por lo tanto, para cimentar como es debido esa Paz duradera que ansiamos, necesitamos generosidad y respeto.

Bakea inorena ez delako, bakea guztiona delako, guztion artean eraiki behar dugu bakearen ondarea, begirunezko elkarbizitzari atea irekiaz. Eta gizartea protagonista izanik, guztion ardura da, biktima guztien aitortza eta errekonozimendua; erreparazioa eta justizia xede izanik.

Irekitzeaz dagoen giza eskubideen eszenatokian, gure herriak bizi izan duen eskubideen urraketak eragindako ondorioak eta zauriak, aitortu eta ixten ahalegindu behar gara. Bakoitzaren ideologia eta identitatea ezabatu gabe, elkarri entzunez, sufrimenduaren kontakizuna herritarrekin partekatuz. Bide honetan, gizarteak begirunean oinarritutako oroimena eta oroitzapena eraiki dezan.

Guztion ahotan maiz entzun dugu berradiskidetasun kontzeptua. Jakinik ere, gure gizartea ez dagoela puskatua, nahiz eta gizarte mailako arazoak egon badauden. Baina egia da ere, bizikidetzaren guztiz normalizaturik lortzeko, oraindik bide luzea daukagula aurretik, izan ere erakundeetan, alderdietan edo hainbat organoetan egin daitezkeen ekimenetatik haratago, eman beharreko garapen pertsonalak daudelako.

Elkarbizitzak elkarrekiko barkamena eskatzen du, denok berdinean eraiki dezagun etorkizuna.

Bake iraunkorra helburu, urteetako bide zaila daukagu aurrean: baina Bakearen bideak eskuzabaltasuna eskatzen du. Eskuzabaltasuna gizarte oso baten duintasuna berreskuratzeko. Eskuzabaltasuna elkar begirunezko gizartea osatzeko.



Dani Maeztu

Aralarren koordinatzaileordea

Udal mailako politikak erakarrita hasi zinen politikagintzan eta orain beste bi mailatan ari zara: erkidegoan eta alderdi barrukoan. Zer nabarmen-duko zenuke arlo bakoitzean?

Udal politikagintza askoz zuzenagoa da, bai herritarrekin duzun harremanean eta baita euren planteamen-
duak erakunde batera eramateko momentuan. "Politike-
ria" alde batera utzi eta akordioak lortzeko aukera
gehiago dago, beste zinegotziekin harreman zuzenagoa
baita. Azken finean, zure herria da, ondo ezagutzen
duzun herria, eta herriaren alde ari zara lanean.

Legebiltzarrean legegintzaldia berezia da: PSEk eta PPK
gehiengo legala dute, bai, baina errealitate sozialari
begiratuta gehiago artifiziala da. Gehiago horren
aurrean gatzat da oposizio lanetik harago zerbait lortzea.
Hala ere, informazio ugari eskuratzeko baliabide ezin
hobea da eta maila nazionaleko errealitate politikoa
ezagutzeko leku egokia.

Alderdi mailan izan dut jada esperientzia polit bat,
zinegotzien aholkularia izan nintzenekoa. Ia eskualde
guztietako militanteak ezagutu nituen eta Aralarrek
zeukan altxor preziatuena zein den jakin nuen: pertso-
nak. Kide guztiek argi geneukan alderdi politikoak gizar-
tea aldatzeko tresna bat garela eta hori argi izatea asko
irabazita edukitzea dela uste dut.

Hamar urteko militantziaren ostean ze eboluzio izan du zure ikuspuntu politikoak?

Udaletxean 8 urteko ibilbidea egin ostean, lantzean
behin hasierako grina suspertu egiten zaidala nabaritz-
zen dut, lasaitzeko astirik ez dagoela sumatzen duda-
lako. Bestela, nire diskurtso politikoa beti izan da
berdintsua, antzekoa defendatzea tokatu zaidalako:
udalean eta parlamentuan oposizioan izanda, EAJ, PSE
eta PPrene eredu sozial eta ekonomikoaren aurka
borrokatzea, eta beste garapen eredu bat beharrezkoa
eta posible dela aldarrikatzea.

Legebiltzarrean ezaguna zara beste taldeekin akordioak lortzeko eta ekimenak aurrera ateratzeko gaitasuna duzulako.

Gaiaren arabera gertatzen da hori, izan ere, Aralar ere
bakarrik geratu da zenbait kasutan, ez duelako bere
posizionamendua inondik inora aldatu, esaterako,
AHTren edo beste azpiegitura askoren bideragarritasun
ezaren defentsan. Baina egia da beste gai batzuetan
akordioetara heltzea errazagoa dela. Argi daukat ez
daukala zentzurik, gai bat ondo landu ostean eta eragi-
leekin batera lan mardula egin ostean, proposamena
jarrera maximalistarekin aurkeztea. Eragileen ikuspuntu-



Elkarriketa

tik oso garrantzitsua da erakundeetatik babesat lortzea
eta hori akordioak lortuz egiten da.

Azken asteotan testuinguru politikoa aldatu da. Ze ekarpen egingo dio Aralarrek hastapenean dagoen testuinguru politiko berriari?

Ezker abertzale zibil eta zabala eraikitzeke dagoela argi
dago. Gero eta zibilagoa denez, geratzen zaiguna da
gero eta zabalagoa egitea. Ezkerrearen politika XXI men-
dean nondik joan behar den erakutsi behar dugu:
merkatuek inposatzen duten eredu ekonomikotik
harago alternatibak daudela erakustea, eta pertsonak
eta interes kolektiboak politikaren erdigunean kokatzea
tokatzen zaigu. Horrez gain, gizaki eta naturaren arteko
harremana aldatzea lortu behar dugu; natura ez da
gizakiaren jardura ekonomikoa garatzeko lekua, baizik
eta hurrengo belaunaldiari utzi behar diogun ondarea.

**Eta helburu hori lortzeko testuinguruan helduta-
suna dagoela uste duzu?**

Ez dakit, baina argi daukat hori izan behar dela gure
helburua eta erronka. Egia da ezker abertzaleko sentsi-
bilitate guztien artean ez dela eztabaida sakona
ematen, zer nolako etorkizuneko ezker abertzalea gura
dugun jakiteko. Baina nire etorkizuneko ildo
politikoa guraria hortik doa.

**Hauteskundeen ostean zein gai uste duzu egongo
direla aktualitate politikoan?**

Gatazka armatuaren ondorioak (biktimak, presoak eta
elkarbizitza) lehenetsiko dira eta erabakitzeke eskubi-
dea ere egongo da eztabaidagai. Horiez gain, nik beste
ardura batzuk ere baditut: ingurumenarekin eta lurralde
antolaketarekin zerikusia duten gai sektorialak. Hala
ere, badakit azken horiek ere agenda politikoan egote-
ko lan handia egin behar dugula. O dugu bake iraunkorra.
Horrela bakarrik ahalbidetuko dugu desberdinen arteko
gutxieneko hurbilketa eta elkarbizitza baketsua.

